

## Heziketa Berezian 2022-2023 ikasturte hasierako esleipen prozesua Kaotikoa!!!

Irailaren 1ean indarrean sartuko direnen 2022-2023 ikasturteko bakanteen esleipenen (ZHI izan ezik) behin betiko ebazpena argitaratu da gaur. Banatutako lanpostuak ordezkoen zerrendako puntuazio honetara heldu dira kolektiboz kolektibo:

| Hezkuntza Laguntza Espezialista |       |                          |
|---------------------------------|-------|--------------------------|
| Araba                           | Osoa  | 28,5                     |
|                                 | Erdia | 8,5 (gazt.)<br>5 (eusk.) |
| Gipuzkoa                        | Osoa  | 92                       |
|                                 | Erdia | 38,5                     |
| Bizkaia                         | Osoa  | 42                       |
|                                 | Erdia | 9                        |

| Fisioterapeutak |       |       |
|-----------------|-------|-------|
| Araba           | Osoa  | 93    |
|                 | Erdia | 136,5 |
| Bizkaia         | Erdia | 87    |

| Okupazio Terapeutak |       |     |
|---------------------|-------|-----|
| Araba               | Osoa  | 49  |
| Gipuzkoa            | Osoa  | 148 |
|                     | Erdia | 85  |
| Bizkaia             | Erdia | 54  |

| Transkriptoreak |      |    |
|-----------------|------|----|
| Araba           | Osoa | 70 |
| Gipuzkoa        | Osoa | 83 |
| Bizkaia         | Osoa | 53 |

Bigarren urtea da esleipenak ekainean egiten direla. Administrazioak, ikasturte hasierako esleipen prozesua nola kudeatu duen salatu nahi dugu.

Bi hilabeteko prozesu luze honetan administrazioak izan dituen akatsak larriak izan dira:

Ikastetxeen eskaera egiteko parte hartzaileen behin behineko zerrenda publikatzerakoan langile asko ez dira bertan agertu, momentu horretan ordezkapen bat betetzen zeudelako edo administrazioak ofizioz erabilgarri jarri ez dituelako.

Lanpostuen behin betiko zerrendan ere akatsak egon dira, langileek ikastetxeen aukeraketa egin eta gero lanpostu batzuk zerrendetatik desagertu dira inongo azalpenik gabe.

LAB sindikatutik hamaika erreklamazio egin ditugu

***Esleipen prozesua ez delako soilik tramite administratibo bat, prozesu honen atzean langileak daude eta pertsona hauen hurrengo ikasturteko lana jokoan dago!***

heziketaberezia@lab.eus – 666 77 81 52  
heziketaberezia**bizkaia**@lab.eus – 666 77 18 67  
heziketaberezia**gipuzkoa**@lab.eus – 666 77 57 03  
heziketaberezia**araba**@lab.eus- 945 25 84 04 / 648 73 56 79

>irakaskuntza

